

GOIZAPASA UDALEKU IREKIAK 2022

Kaixo guraso!

Irurako haurrei eskaintza iraunkorra eskainiaz, haien haurtzaroz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea bermatzea dugu haur, nerabe eta gazte zerbitzuko helburu. Horregatik, 2021-2022 ikasturteari amaiera emateko **goiza pasa** udaleku irekiak aurkeztera gatoz.

Haurren aisialdia 4 urterekin hasten denez hortik beherakoa "haurtzaro txikia" bezala da ezaguna. Etapa horretan familiarekiko loturak eta oinarriko estimulaziotarako sarbideak dira nagusi haurren arretan. Arrazoi honengatik, udalak **2018 eta 2019an jaiotako haurrentzat** euren etapako beharren arabera programazio bat garatuko du. Horretarako, joan zen urtean bezala, etapa honetako haurrentzat **udalerrian burutzeko ekintzak prestatuko ditugu.**

Beraz, goiza pasako **udaleku irekiak 2011-2017 urte bitarteetan jaiotakoekin** hasiko dira. Hauen kasuan, programazioaren barruan, zenbait ordu aldaketa egon ahalko dira, baina guztiak ongi zehaztuta agertuko dira bertan.

Jakinarazi nahi dizuegu ere, kontziente garelako zerbitzu honek herriarentzat duen balioaz. Horregatik, udalak, ahal dituen baliabide ekonomiko eta pertsonal guztiak jartzen ditu zuen eskura. Hemen dituzue 2021eko uda aisialdia udaleku irekietako datu batzuk:

Parte hartzaile kopurua:	HAURRAK: 117	NERABEAK: 58
Udalak kontratatutako begirale kopurua:	BEGIRALEAK: 22	
Diru sarrerak eta gastuak:	SARRERAK: 8.702,43€	GASTUAK: 37.135,26€

Aurten, izen-ematea elektronikoki egin behar da www.irura.eus webguneko on-line tramiteak ataletik. Horretarako, sinadura elektronikoa beharko duzue, ez duzuenok BakQ-a eska dezakezue udaletxeko harreran (herriarrentzako identifikazio elektronikoa). Izen ematea egiteko edozein zailtasun izanez gero, zuen beharretara egongo gara kultura bulegoan egun eta ordutegi hauetan:

- Maiatzaren 2tik 6ra eta 9tik 12ra (09:00-13:00)
- Maiatzak 3, 5, 10 eta 12an (16:00-18:00)

Aipatu ere, udaletik zerbitzua normaltasunez antolatzen jarraituko dugula osasun neurriek bermatzen duten heinean.

Goiza pasan elkar ikusiko dugulakoan, aldeztu aurretik eskerrik asko eta ondo izan.



Izena emateko epea:	Maiatzaren 2tik 12ra (biak barne). Elektronikoki egingo da www.irura.eus webguneko on-line tramiteak ataletik.
Txanda/k: bakoitzak komeni zaion txandan/txandetan izena eman dezake:	1.TXANDA: UZTAILAREN 4TIK 15ERA. 2.TXANDA: UZTAILAREN 18TIK 29RA.
Ordutegia:	Astelehenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik 13:00etara.
Zaintza:	Goizeko 09:00etatik 10:00etara zaintza zerbitzua egongo da. Honen kostua seme-alaba batengatik 20€ txandako, bi seme-alabengatik 30€ txandako, eta hiru seme-alabengatik 36€ txandako izango da. Inork egun soil batzuetako zaintza behar izanez gero, txanda osoa ordaindu beharko du.
Parte hartzaileak:	2011-2019 urteen artean jaiotakoak(biak barne).
Prezioak:	Txanda bakarra: 50 € Bi txandak: 90 €

Familia ugariaren agiria aurkezten dutenei %15eko hobaria aplikatuko zaie (izen ematearekin batera agiria bidaltzea beharrezkoa da). Seme-alaba bat baina gehiagok izena eman badute %10eko hobaria aplikatuko da (Beti ere haurren goiza pasan izena eman ez gero, eta ez gaztelekuko goiza pasan). Hobari hauek bateragarriak dira.

Ekonomikoki egoera zailean dauden familietako kideak, gizarte zerbitzuetako hobari soziala eskuratzeko aukera izango dute izen emate formularioan eskaera egin eta gizarte langilearen agiria lortzen badute (RGI ra lotua egongo da agiri hori). Hobaria lortuz gero, aurrez aipatutako murrizpenak aplikatu ondorengo kopuruaren %10 ordaindu ahal izango dute.

KOBRAKETA UDALAK EGINGO DU ZUEK BAIMENDUTAKO KONTU KORRONTETIK.

OHARRAK:

- ✓ IZEN EMATEAREKIN BATERA **OSASUN TXARTELAREN** KOPIA BIDALTzea beharrezkoa da aurrez aurkeztu ez dutenek.
- ✓ HAURRAK **BEHAR BEREZIREN BAT BADU** (DISLEXIA, ADIMEN URRITASUNA, JARRERA ARAZOAK, ALERGIAK, ETAB.), GARRANTZITSUA DA IZEN EMATERAKOAN BEHARREZKO ZEHAZTASUN GUZTIAK AZALTzea NORBANAKOAREN ETA TALDEAREN ONURARAKO.
- ✓ EPEZ KANPO EGINDAKO IZEN-EMATEAK ONARTUKO DIRA **BALDIN ETA TALDEAN PLAZARIK BADA** ETA MAIATZAREN 27A BAINO LEHEN EGINDAKOAK BADIRA.
- ✓ MATRIKULA EPEA AMAITU ONDOREN **EZ DA MATRIKULAREN DIRURIK ITZULIKO**, BALDIN ETA GAIXOTASUN EDO ISTRIPU LARRIAGATIK EZ BADA (MEDIKUAREN ZIURTAGIRIAREKIN), ETA BEHIN MATRIKULATU ONDOREN EZINGO DA MATRIKULATUTAKO TXANDAZ ALDATU ERE.
- ✓ EGURALDIA DELA ETA **EKINTZAK ALDA DAITEZKE**.

